



LAZTANDU- ELLACURIA

**JUAN ELLACURIA LARRAURI EGOITZA,
SESTAOKO UDALA**

B ARDATZA: EGUNEROKO BIZITZA ESANGURATSUA

SARRERA

Halaber, aipatu dugun Sestaoko Udalaren eta Santurtziko San Juan de Dios Ospitalearen arteko hitzarmenean, egoitzak programan parte hartzen du baita ere. Programaren helburu nagusia laguntza emozionala, soziala eta espirituala ematea da gaixotasun aurreratuak dituztenei eta babes emozionala ematea familia eta langileei, beren bizi kalitatea hobetze aldera.

PRAKTIKA ONAREN GARAPENA

Dementia gaixotasun progresibo eta sendaezina da eta, horrenbestez, ikuspegi aringarria behar da, bereziki fase aurreratuetan, sufrimendua arinduz eta pertsonaren eta familiaren bizi kalitatea hobetuz. Arintze arreta hori ez da bakarrik bizitzaren azken egunetan ematen, ezta osasun esku-hartzean bakarrik ere, baizik eta arreta osoa, fisikoa, psikologikoa, soziala eta espirituala ematen da ahultasun fisikoko eta kronikotasun testuinguruetan. Erabiltzaileek eta familiekin laguntza eta babesa jasotzen dituzte, eta zaintzetan aurretiazko erabakiak hartzeko prozesuak erraztu daitezke baita ere. Halaber, zenbaitetan zaila da dementia aurreratuak dituztenentzako bereziki diseinaturako jarduerak eskaintzea, eta familiekin zentroko programazioan parte hartu nahi izaten dute. Kontuan hartu behar da, baita ere, narriadura prozesuetan isolamendu eta deskonexio egoerak gerta daitezkeela. Horrekin lotuta, Juan Ellacuría Larrauri egoitzak Snoezelen izeneko asteko saioak egiten ditu. Zentroko psikologoak bideratzen ditu, eta eragin positiboa dute narriadura maila handiagoa duten egoiliarrengan. Hori dela-eta, esku-hartze hori Lastandu-Ellacuría proiektuarekin osatzea baloratu zen.

ESPARRU TEORIKOA

Lastandu-Ellacuría esku hartze proiektu bat da, eta AEBn Joyce Simardek garatu zuen dementia aurreratua dutenentzako eta familientzako Namaste Care izeneko programa egokitzen da bertan. Nazioartean ezarri duten programa da, eta frogatu da eraginkorra dela dementia dutenen bizi kalitatea hobetzeko. Garrantzitsua da aipatzea Namaste Care egunero edozein zaintzailekin egin beharreko programa dela eta, horregatik, Lastandu-Ellacuría esku-hartzea gure zaintza inguruetara egindako egokitapena da, eta helburua pilotua da, deskubritu eta aurrera egiteko. Namaste Caren eta gure inguruko egokitapenaren oinarri dira Pertsona ardatz duen arretaren paradigma eta pertsonen behar psikosozialen hurbilketa (Kitwood).

Modu horretan, ikuspegia dementziaren atzean dagoen pertsona eta bere bakartasunean zentratzen da, eta erosotasun, lotura, nortasun, okupazio eta gizarteratze beharrak sustatzen ditu. Horretarako, estimulazio sensoriala eta emozionala lantzen dira eta jarduera esanguratsuak egiten dira, pertsonalizazioa eta kalitatezko denbora eskainiz.



HELBURU OROKORRAK

- Baditugun baliabideak osatzea, dementzia aurrerratuak dituztenen behar psikosozialei erantzuteko.
- Erosotasun eta gizarte interakzioeko espazioa eskaintzea, esanguratsu eta egituratua.
- Dementzia duena inguruarekin komunikatzea sustatzea.
- Ikuspegi aringarria sartzea, eta aukerak sortzea familiekin arretaren plangintza aurreratua egiteko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Arretaren indibidualizazioa eta pertsonaren lehentasun eta nahietara egokitzea sustatzea.
- Familia eta profesionalen parte-hartzea sustatzea, eta zaintzekiko duten gogobetetasuna hobetzea.
- Dementzia aurrerratuak dituztenen gizarte sarea aberastea, eta erosotasun, interakzio eta ongizate esperientziak erraztea egunerokotasunean.
- Dementzia aurrerratuak dituztenei ikusgarritasun handiagoa ematea, eta beraien gizarteratzea erraztea.

Laztandu-Ellacuría taldeko esku-hartze egituratua da, eta dementzia aurrerratuak (GDS 6 eta 7 faseak) dituztenen zaintza indibidualizatuak eta erosotasunekoak testatzen dira, eta gero emaitzak zuzeneko interakzioetan aplikatzen dira, egoitzaren egunerokotasunean zaintzaren ingurua aberastu eta errazteko. Zentroan programatuta dauden Snoezelen saioen osagarriak dira, bi esku-hartzeek dementzia aurrerratuagoak dituzten egoiliarren ongizatea sustatzen baitute.

Saioak parte-hartzaileen behar eta aldaketetara egokitzen dira eta gehienez ere 8 egoiliarrekin egiten dira. Egoiliar kopurua kontrolatzeaz gain (ez izatea handiegia, pertsonalizazioa errazteko), ezinbestekoa da erosotasun giroa sortzea estalitako oinarritzko beharrak aintzat hartuta, zaratarik gabe, argi ahularekin, eta espazioak eta saioen denborak errespetatzea.

Saio bakoitzak lau une ditu. Lehenik eta behin, jada prestatutako espazio fisikora ongi-etorri beroa egiten zaie, eta pertsonaren erosotasuna aztertzen da. Gero, erlaxatzeko denbora ematen zaie, eta ongizate giroa sortzen da hainbat jardueren bidez, adibidez, asetzea, eskuetan masajea ematea, elkarri eskuetatik heltzea, bizi historiari buruz hitz egitea, janaria eskaintzea, estimulazio ekintza egokituak eta pertsonalizatuak jasotako informazioari esker, hala nola, musika gogokoena entzutea, zentzumenen arabera objektu anitzak ematea, jolastea, etab. Azkenik, informatutako itxiera moldatua egiten da.

Pertsonalizazioa, sormena eta egoiliarren egoerarekiko egokitzapena gidaritzat hartzen dira saioak garatzeko. Pertsonalizazio hori lortzeko, alde batetik, kontuan hartu da Snoezelen saioetan erabilitako analisi sensoriala eta egoiliarren ezagutza abiapuntu gisa, baina horretaz gain, espezifikoagoa den eta Laztandu-Ellacuríara gehiago egokitu den analisi sensoriala ere egin da. Beste alde batetik, familiekin egindako elkarrizketetan bizi historia eta biografia sensoriala jasotzen dira. Informazio horretaz gain, erreferentziazko profesionalak Dementzia Aurreratuan Bizi Kalitatearen Eskalaren (CAVIDA-QUALID) bidez emandako informazioa ere jaso da.



Laztandu-Ellacuría egoitzan ezartzeko faseak taula honetan jaso dira:

Zentroari proposamena aurkeztea	2023ko otsaila
Parte-hartzaile posibleak identifikatzea eta familiei deitzea	2023ko martxoa
Laztandu-Ellacuría langileei aurkeztea	2023ko martxoa
Familiekin elkarriketak egitea	2023ko apirila
Profesional erreferenteen informazioa (CAVIDA- QUALID) jasotzea	2023ko apirila
Laztandu-Ellacuría taldea hastea	2023ko maiatzean
Saioetan arreta zuzeneko langileak eta familia sartzea	2023ko iraila-azaroa
Taldeko esku-hartzearen ebaluazioa	2023ko Abendua
Ikasitakoak egunerokotasunean orokortzea	2023ko abendutik aurrera

Martxan jartzeko erabilitako baliabideak izan dira, alde batetik, eta denborari dagokionez, egoitzako jardueren egutegia berrantolatzea, modu horretan, esku-hartzean bi langile arduradun egoteko, zentroko psikologoa eta San Juan de Dios Ospitaleko psikologoa, eta saioak egiteko gela prestatzea. Saioak hasi baino lehen, denbora inbertsioa egin zen modu honetan: 4 ordu dokumentazioa sortzeko, 1 ordu langileei aurkezteko, 2 ordu parte-hartzaile bakoitzeko (8 guztira) bizi historiaren eta biografia sentzorialaren elkarriketa egiteko familiekin, eta 1 ordu langileekin informazioa jasotzeko. Halaber, asteko saio bakoitzean gutxi gorabehera 2,5 ordu behar dira, esku-hartzearen iraupen ordua, espazioa eta materialak prestatzeko eta ikusitako erantzunen erregistroa egiteko.

Bestalde, baliabide materialei dagokionez, nagusiki egoitzak Snoezelen saioetarako zuen materiala erabili da, eta horretarako hasierako inbertsioa 160 eurokoa izan zen (argi sortak, zapi lurrintsuak, hezegailua, esentzia naturalak, etab.). Horretaz gain, proiektu honetarako materialak erosi dira estimulazio sentzorialeko jarduerak egiteko, eta merkeak izan dira (estimulazio panpinak).

Gaurdaino, eta Laztandu-Ellacuriako egindako 14 saioekin, lantaldeak esan du saioak oso positiboak direla, eta parte-hartzaileak eta familiak pozik daudela. Saioetan arreta zuzeneko langileak sartzen joatea da une honetako lehentasuna, horrela, estimulazioa eta interakzio esanguratsuak zentroko egunerokotasunean aplikatzeko. Modu horretan, hasierako 15 saioetako proposamena luzatu egingo da, egoitzako langile ahalik eta gehienek parte har dezaten.

EMAITZAK ETA ERAGINA

Proposamen hau idatzi den egunean Laztandu-Ellacuriaren programatutako esku-hartze saioak bukatzeke zeudenez, ez dugu datu objektibo kuantitatiborik emaitza eta eragina ebaluatzeko. Hala eta guztiz ere, saio bakoitzaren bukaerako egoiliarren erantzunak erregistratu eta baloratu dira, eta langileen eta familien iritzia baita ere. Hala, beraiekin harremanetan jarri gara elkarrekiko feedbacka errazteko, eta beraien baimenarekin, saioen bideoak bidali dizkiegu.

Egoiliarrei dagokienez, ongizate erreakzioak nabari dira saioetan (aurpegi adierazpena, jarrera, komunikazioa...), eta egonezin adierazpenak egonez gero, arintzen saiatzen gara. Saioetan parte hartzen duten egoitzako langileei dagokienez, dementzia aurreratua dutenekin komunikatu eta beraiei laguntzeko modu honekiko gogobeteago daudela diote, eta hobeto ezagutzen dituztela, beren bizi historiaren eta biografia sentzorialaren bitartez. Halaber, familiak interesatuta daude saioen bilakaerarekiko eta pozik daude erantzunarekin. Horri guztiari esker, laster taldean parte hartzera gonbidatuko ditugu, senideak bisitatzen dituztenean laguntza baliabide gehiago izan ditzaten, eta lantaldearentzat ere lagungarria izango da. Laburbilduz, baditugu aurretiazko ebidentzia kualitatiboak, frogatzeko Laztandu-Ellacuriak eragin positiboa duela egoiliar, familia eta langileengan.